

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 367/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Covid-19ak kaltetutako kirol klub eta elkarteak mantentzen laguntzeko dirulaguntza deialdiari**

Maiatzaren 26ko 213/2020 Erabakiaren bidez, Covid-19aren ondorioak direla eta Arabako Foru Aldundiaren Arabako ekonomia suspertzeko A Plana onetsi zen.

Plana 10 bloke handitan egituratzen da, eta horietatik 50 neurri zehatz hedatzen dira, egoeraren arabera, finantza, zerga, aurrekontu eta sektore arloetan.

A Planaren 10. blokean, "Arabatik sorkuntzarako", 10.5 puntuan ("Kirol arloa suspertzeko plana"), Arabako taldeen enpleguari eta kalitateari eusten laguntzeko 5. jarduera dago.

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.), Arabako Foru Aldundiak onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka prozedura ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

Oinarri horien onespeneren ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, nahitaezko da ezartzea Arabako Lurralde Historikoko A Planeko kirol klub eta elkarteak mantentzeko dirulaguntzen deialdia 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko A Planeko kirol klub eta elkarteak mantentzeko dirulaguntzen deialdia 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era, gehienez ere EHUN ETA BERROGEI MILA EUROKO (140.000,00 euro) zuzkidurarekin, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko baita (ALHAOn argitaratua, 134. zenbakian, 2019ko azaroaren 20an); izan ere, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka prozedura ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak eta erabaki honen l. eranskinean jasotako oinarri espezifikokoak onetsi zituen hark.

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2020rako Aurrekontuko "A Plana, kirol klub eta elkarteak mantentzea" izeneko 70201.77.01.481.00.1.3 partidaren kontura ordainduko da (lerroa: 70-161; zorpekin erreferentzia: 105.2555).

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du dagokion ebazpena, Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertuta; lau hilabeteko epea du ebazpena emateko, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela uler dezakete.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 42. eta 43. artikuluetan ezartzen dituen moduetan.

Seigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera dagoen II. eranskinaren edukia bertan sartuz.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 28a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*

**ANA M. DEL VAL SANCHO**

*Kultura eta Kirol zuzendaria*

**PABLO DE ORAÁ OLEAGA**

## I. Eranskina

### **Dirulaguntza deialdia, Arabako Lurralde Historikoko kirol klub eta elkarteak mantentzeko**

#### **Lehenengoa. Xedea eta helburua**

Deialdi honen xedea da norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea kirol arloa indarberritzeko pizgarriak emateko helburuaz, eta bereziki Covid-19ak eragindako Arabako Lurralde Historikoko kirol klub eta elkarteak mantentzeko, Arabako Foru Aldundiak Arabaren ekonomia suspertzeko onetsitako planean ezarritakoaren arabera, eta Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan xedatutakoaren esparruan, zeinaren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri arau orokorrak.

#### **Bigarrena. Aurrekontuei egoztea**

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere helburu horretara bideratu den zuzkidura baino gehiago, hau da, 140.000,00 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko gastu aurrekontuko "Kirol klub eta elkarteak mantentzeko plana" izeneko 70.2.01.77.01.4.8.1.00.1.3 partidaren kontura ordainduko da.

#### **Hirugarrena. Erakunde onuradunak**

Kirol talde eta/edo elkarteek ondoko baldintza hauek bete behar dituzte mota honetako laguntzak jaso ahal izateko:

- a) Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egotea.
- b) Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea.
- c) Arabako lurraldeko kirol federazioetako bati atxikita egotea.

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri arau orokorrak, hirugarren klausulan bazter utzitakoez gainera, honako hauek ere kanpo egongo dira:

\* Kirol erakunde profesionalak; halakotzat hartzen dira indarrean dauden araudian jasotakoak (LFP, ACB, etab.)

\* Klubak, zeinak aurreko paragrafoan sartzen ez badira ere kirolari profesionalak baitauzkate.

\* Arabako Foru Aldundiarekin babes kontratua daukaten goi mailako kirol klubak eta/edo taldeak, haien goi mailako talderen batentzat. Egoera horretan, kirol klub eta/edo elkarteek eskaerak aurkeztu ahaliko dituzte paragrafo honen hasieran adierazitakoa baino kategoria txikiagoko taldeentzat, baldin eta deialdi honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

\* Klubak, zeinak "profesionalak" izan ez arren kontratu eta/edo beste era bateko loturak baitauzkate, betiere zuzenean (adibidez eskumeneko kluba) klub profesionalekin edo hartakotzat jotzen direnekin.

\* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen egunean ez dauden kirol klubak edo elkarteak.

\* Urriaren 19ko 11/2016 Lege Orokorrak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau hausteengatik zehapena jaso duten kirol klub edo elkarteak, bai eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, jasotzen dituen kasuetan daudenak ere.

#### **Laugarrena. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta aldia**

Oro har, dirulaguntza emango da zazpigarren klausulan diruz laguntzeko gisa ezarritako gastu eta kontzeptuengatik, 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean sortu eta ordainduak badira, egun biak barne.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

1. Eskaerak honela aurkeztu ahal izango dira:

– Paperean, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo ituna duten udalen erregistro orokorretan.

– Bitarteko elektronikoen bidez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitezkeen erregistro elektronikoen.

Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

2. Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidaliko zaizkio eskaerak, I. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuta.

3. Diruz laguntzeko moduko gastuak egiaztatzen dituzten faktura(k) eta, hala dagokionean, haiek ordaindu izanaren frogagiriak.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik:

– Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

– Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

– Gastuaren xedea.

– Data.

– Faktura zenbakia.

Era berean, PEFZari (persona fisikoen errentaren gaineko zergari) buruzko araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuak justifikatzeko.

4. Beharrezkoa da fakturak jatorrizko formatuan aurkeztea; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez, datozenak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoz bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.

5. Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren frogagiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua jarrita daukala.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

– Jatorrizko erosketak txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritzak guneeetakoak, autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzeriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egiaztagiria aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik. Zerga betebeharrak dagokienez, baldin eta sozietatearen egoitza Araban daukaten erakunde onuradunak badira, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituen araudiak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gaingaitzen baditu, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaile, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez dagoen zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin den.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskabidean; haien artean hautatzeko irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira, berenbe-regi, memoria batean.

#### **Seigarrena. Aurkezteko epea**

Hogeita hamar egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak**

1. Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

2. Laguntzen zenbatekoa ezartzeko, eskaeran emandako datuak balioetsiko dira (eskaera orria), puntuazio baremoan jasotzen diren irizpide hauen arabera:

Kontuan edukiko da gastu konputagarrien aurrekontu osoa, 14 punturaino, honela xehatuta:

GASTU KONPUTAGARRIAK, GUZTIRA	PUNTUAK
0 eta 499 euro artean	1
500 eta 999 euro artean	2
1.000 eta 1.499 euro artean	3
1.500 eta 1.999 euro artean	4
2.000 eta 2.499 euro artean	5
2.500 eta 2.999 euro artean	6
3.000 eta 3.499 euro artean	7
3.500 eta 3.999 euro artean	8
4.000 eta 4.499 euro artean	9
4.500 eta 4.999 euro artean	10
5.000 eta 5.499 euro artean	11
5.500 eta 5.999 euro artean	12
6.000 eta 6.499 euro artean	13
6.500 euro edo gehiago	14

Laguntza kalkulatzeko, puntuazio baremoaren arabera, honako hauek hartuko dira GASTU KONPUTAGARRITZAT:

- Kirol jarduerarekin lotura duten espazio eta instalazioen alokairua.
- Urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko aldian ordaindutako amortizazioa eta interesak, kirol klubaren edo elkartearen egoitza dagoen higiezinaren erosketa finantzatzeko kredituenak.
- Aholkularitza eta gestoria.
- Komunikazioa eta zabalkundea.
- Lizentziak/fitxak/izen-ematea.
- Bulego edo kirol material suntsikorra.
- Ibilgailuen alokairua eta konponketak (txirridularitzan bakarrik).
- Osasuna/farmazia/fisioterapia.
- Kanpoko garbitze zerbitzuak edo Covid-19 pandemiaren prebentziorako neurriek eragindako gastuak (esku gela, garbiketa, eskularruak, etab.).
- Ur, elektrizitate eta gas hornidura.

Laguntza kalkulatzeko, puntuazio baremoaren arabera, honako hauek EZ DIRA HARTUKO GASTU KONPUTAGARRITZAT:

- Kirolarien egoitza.
- Material inbentariagarria.
- Jokalarien mutualitatea.
- Ordezkaritza.
- Zigorrak.
- Aseguru medikoak/ibilgailuenak/er. zibila/istripu aseguruak.
- Soldatak eta gizarte kotizazioak.
- Garaikurrak.
- Joan-etorriak.

Laguntzak banatzeko puntuazio bidezko banaketa sistema bat aplikatuko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuaren baturaren artean zatituko da. Horren emaitza puntuaren balioa izango da. Puntuaren balioa eta eragindako eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatzearen emaitza izango da ateratzen den laguntza.

Eman beharreko zenbatekoa zeinahi dela ere, gehieneko muga bat izango da erakunde/eskaera bakoitzeko: 5.000,00 euro.

Gastu konputagarriaren muga: gastu konputagarrien kopuru osoa izango da muga.

Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

### **Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Eskaerak Balioespen Batzordeak aztertuko ditu. Balioespen Batzorde horren burua Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Balorazio Batzordeak, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskabideak alderatu ondoren, txosten bat egingo du, ebaluazioaren emaitza eta, hala badagokio, lehentasun-zerrenda zehaztuz.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu behar dute.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. Artikuluak xedatutakoa betez. Ebazpen horrek jakinarazpen balioa izango du.

6. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **Bederatzigarrena. Ordainketa**

Ebazpena eman ondoren ordainduko da dirulaguntza.

#### **Hamargarrena. Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Deialdi honen bidez ematen diren laguntzak bateratu daitezke beste laguntza batzuekin, ez baldin bada gainditzen diruz lagundutako kontzeptuaren zenbatekoa. Muga hori gainditzekotan, deialdi honen bidez emandako laguntza soberakinaren zenbatekoa kenduko zaio.

Onuraduna behartuta dago dirulaguntza eman dion organoari jakinaraztera ea helburu bererako laguntzarik eskatu dion beste administrazio edo erakunde publikoren bati, izan nazioko izan nazioarteko, edo beste entitate edo erakunde pribaturen bati, eta laguntzarik eman dioten.

#### **Hamaikagarrena. Azken klausula**

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arau orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia; eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapenak.

#### **Hamabigarrena. Publizitatea**

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: [www.araba.eus](http://www.araba.eus), Herritarrentzako zerbitzuak / Laguntzak eta dirulaguntzak izeneko atalean eta Kirol Zerbitzua / Laguntzak eta dirulaguntzak.

## II. ERANSKINA / ANEXO II

**Dirulaguntza lerroa:** Kirol klub eta elkarteak mantentzeko A Planerako diru-laguntzak  
**Línea de Subvención:** Subvenciones Plan A para el mantenimiento de clubes y agrupaciones deportivas.

**Lehentasun estrategikoa:** ARABA LURRALDE BIZIA  
**Prioridad estratégica:** ARABA TERRITORIO VIVO  
**Ardatz estrategikoa:** ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA DITUEN LURRALDEA  
**Eje estratégico:** TERRITORIO CON SERVICIOS Y CALIDAD DE VIDA

**Helburu estrategikoa:** KULTURA  
**Objetivo Estratégico:** CULTURA  
**Saila:** Kultura eta Kirola  
**Departamento:** Cultura y Deporte

**Aurrekontu partida:** 70.2.01.77.01.4.8.1.00.1.3 "Kirol klubak eta elkarteak mantentzeko A Plan-a"  
**Partida presupuestaria:** 70.2.01.77.01.4.8.1.00.1.3 "Plan A mantenimiento clubes y agrupaciones deportivas"

2020	2021	2022	GUZTIRA / TOTAL
140.000,00	0	0	140.000,00

**Dirulaguntzaren xedea:** Kirol-sektorearen suspertzea sustatzea, bereziki Arabako Lurralde Historikoko kirol-klub eta -elkartek mantentzeko, Covid-19ren eraginpean badaude.

**Objeto de Subvención:** incentivar la reactivación del sector deportivo, de manera específica para el mantenimiento de los clubes y agrupaciones deportivas del Territorio Histórico de Álava, afectados por el Covid-19

**Onuraduna:** Arabako Lurralde Historikoko klubak eta kirol-elkartek

**Persona beneficiaria:** clubes y agrupaciones deportivas del Territorio Histórico de Álava

**Emateko prozedura:** Norgehiagoka deialdi bidez

**Procedimiento de concesión:** Concurrencia competitiva mediante convocatoria

**Dirulaguntzaren oinarritzko lerroak:**

**Líneas básicas de la subvención:**


**Baterako finantzaketa:**

**Cofinanciación:**

**Jarraipen prozedura eta adierazleak:** Jasotako eskaeren kopurua

**Régimen de seguimiento e indicadores:** número de solicitudes recibidas



 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Kirol klubak eta elkarteak mantentzeko laguntza A Plana. Eskaera. (I. eranskina)</b></p>
	<p><b>2020</b> Solicitud. Ayuda mantenimiento clubes y agrupaciones deportivas Plan A. (Anexo I)</p>

**Kultura eta Kirol Saila** Departamento de Cultura y Deporte

ASUN

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

**ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>**

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input checked="" type="checkbox"/> IFZ ■ NIF		<b>Identifikazio zk. ■ Nº identificativo</b> <input type="text"/>	
<b>Sozietatearen izena ■ Razón social</b> <input type="text"/>			
<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>		<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>
<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>		<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>	<b>Aldea ■ Mano</b> <input type="text"/>
<b>Herrialdea ■ País</b> <input type="text"/>	<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>	<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>	<b>Herría ■ Localidad</b> <input type="text"/>
<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>			
<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>			
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>	<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>	<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>	

**JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>**

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)


<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>		<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>
<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>		<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>	<b>Aldea ■ Mano</b> <input type="text"/>
<b>Herrialdea ■ País</b> <input type="text"/>	<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>	<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>	<b>Herría ■ Localidad</b> <input type="text"/>
<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>			

**LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL**

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro		<b>Identifikazio zk. ■ Nº identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
<b>Izena ■ Nombre</b> <input type="text"/>		<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>	
<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>					
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>	<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>	<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>			

Orria ■ Hoja 1/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Kirol klubak eta elkarteak mantentzeko laguntza A Plana. Eskaera. (I. eranskina)</b></p> <p><b>2020</b> Solicitud. Ayuda mantenimiento clubes y agrupaciones deportivas Plan A. (Anexo I)</p>
--	---

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

**ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■**  
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.


<b>Izen-abizenak ■</b> Nombre y apellidos	
<b>NAN ■</b> DNI	
<b>Entitatea ■</b> Entidad	
<b>IFZ ■</b> NIF	
<b>Kargua ■</b> Cargo	

.....  
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

<p><b>ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA ■</b> SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA</p>	<p><b>Sinadura ■</b> Firma</p>
--	------------------------------------

<p><b>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia. (AURREKO ALDEA)</b></p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud. (ANVERSO)</p>	<p><b>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia. (ATZEKO ALDEA)</b></p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud. (REVERSO)</p>
---	--

Orria ■ Hoja 2/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Kirol klubak eta elkarteak mantentzeko laguntza A Plana. Eskaera. (I. eranskina)</b></p>
	<p><b>2020</b> Solicitud. Ayuda mantenimiento clubes y agrupaciones deportivas Plan A. (Anexo I)</p>

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte


**BANKUKO DATUAK ■ DATOS BANCARIOS <sup>(3)</sup>**

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

<b>BANKUA ■</b> BANCO	
<b>IBAN</b>	<b>SWIFT</b>

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
<p><b>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■</b></p> <p>Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</b></p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p><b>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■</b></p> <p>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, <b>ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</b></p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan</p> <p><b>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <b>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</b></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

Orria ■ Hoja 3/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Kirol klubak eta elkarteak mantentzeko laguntza A Plana. Eskaera.</b> (I. eranskina)</p> <p><b>2020</b> Solicitud. Ayuda mantenimiento clubes y agrupaciones deportivas Plan A. (Anexo I)</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila      Departamento de Cultura y Deporte</p>

<b>Kirol kluba edo elkartea</b> ■ Club o agrupación deportiva	<b>IFZ</b> ■ NIF

**GASTU AURREKONTUA** ■ PRESUPUESTO DE GASTOS

(Ikus zazpigarren oinarriko gastu konputagarrien definizioa ■ Ver definición de gastos computables de la Base Séptima)

Gastuak ■ Gastos	Zenbatekoa ■ Importe
Aholkularitza- eta kudeaketa-gastuak ■ Gastos de asesoría y gestión	
Komunikazio- eta hedapen-gastuak ■ Gastos de comunicación y difusión	
Lizentziak, fitxak, inskripzioak ■ Licencias, fichas, inscripciones	
Bulego eta/edo kirol materiala suntsikorra ■ Material de oficina y/o deportivo fungible	
Finantza-kredituaren zati proportzionala, klubaren egoitzaren higiezinagatik ■ Parte proporcional del crédito financiero por el inmueble de la sede del club	
Kirol-jarduerarekin lotutako espazioak eta instalazioak alokatzea ■ Alquiler de espacios e instalaciones relacionados con la actividad deportiva.	
Ibilgailuen alokairua eta konponketa (txirrindularitza bakarrik) ■ Alquiler y reparación de vehículos (solo ciclismo)	
Sanitarioak/farmazia/fisioterapia ■ Sanitarios/farmacia/fisioterapia	
Kanpoko garbiketa-zerbitzuak eta/edo kovid-19 pandemiaren prebentzio-neurrien ondoriozko gastuak (gel-eskuak, garbiketa, eskularruak, etab.) ■ Servicios exteriores de limpieza y/o gastos derivados de las medidas de prevención de la pandemia covid-19 (gel manos, limpieza, guantes, etc...)	
Ura, elektrizitatea eta/edo gasa hornitzea ■ Suministros agua, electricidad y/o gas	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b> ■ TOTAL GASTOS	

<input type="checkbox"/>	<b>Administrazioari edo dagokion erakundeari baimena ematen diot dirulaguntzaren ordainketa edota zuriketa egin ahal izateko premiazko diren fiskaltate datuen gaineko informazioa eskatzeko</b> ■ Autorizo a solicitar a la administración u organismo correspondiente información relativa a los datos de carácter fiscal que tengan relación directa con los requisitos para el abono y/o justificación de la subvención
<input type="checkbox"/>	<b>Entitateak soldatapeko langileak ditu</b> ■ La entidad tiene personal asalariado
<input type="checkbox"/>	<b>Zerga betebeharrak egunean ditu</b> ■ Se encuentra al corriente de obligaciones fiscales
<input type="checkbox"/>	<b>Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ditu</b> ■ Se encuentra al corriente de obligaciones con la Seguridad Social
<input type="checkbox"/>	<b>Gizarte Segurantzaren ziurtagiria erantsita doa</b> ■ Se acompaña certificado Seguridad Social
<input type="checkbox"/>	<b>Erakunde eskatzaileak BEZaren kuota jasana konpentsatu edo berreskuratzeko eskubidea dauka</b> ■ La entidad solicitante tiene derecho a compensar o recuperar la cuota de IVA soportada
<input type="checkbox"/>	<b>BEZaren salbuespenaren ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana (baldin eta alde zurretik aurkeztu ez bada) edo erakundeko presidentearen kargua doakoa delako adierazpena</b> ■ Certificado de exención de IVA expedido por la administración tributaria competente (si no ha sido presentado anteriormente) o declaración del carácter gratuito del cargo de presidente de la entidad
<input type="checkbox"/>	<b>Entitateak Foru Gobernu Kontseiluaren, azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 3. puntuan adierazten dena betetzen du</b> ■ La entidad cumple con lo dispuesto en el Decreto Foral 50/2019, del Consejo de Gobierno Foral, de 12 de noviembre en su punto 3



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

## Kirol klubak eta elkarteak mantentzeko laguntza A Plana.

**Eskaera.**  
(I. eranskina)

**2020**

Solicitud. Ayuda mantenimiento clubes y agrupaciones deportivas Plan A.  
(Anexo I)

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

### Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman ditziguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Kirolariak izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua kirol jarduerak eta entitateekin zerikusia duten beak eta dirulaguntzak kudeatzeko, kirol prestakuntzako ikastaroak egiteko, jarduerak ikuskatzeko eta iradokizunak kudeatzeko egiten da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, lege ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOk aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

### Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoko bakarraren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

### Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titulartatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

### Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT

#### LEHENENGOA.

Ez ordezkatzan dudan elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela sexua dela eta inor bazterten, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### BIGARRENA.

Ez ordezkatzan dudan elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela zigorrik izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor baztertzegatik, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzegatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

### Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. Nos facilita van a ser incluidos en el Fichero Deportistas titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de concesión de becas y subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas, realización de cursos de formación deportiva, inspección de actividades y gestión de sugerencias. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

### Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

### Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

### Nota (4)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

#### PRIMERO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

#### SEGUNDO .

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.